



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko apirilaren 19an

30 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da irakasleak euskarazko birziklapen ikastaroak egin ditzaten aukera emateko neurriak har ditzan, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

—Ebazpena. Horren bidez, Osasun Kontseilaria premiatzen da gazteen artean GIBari aurrea hartzeko jarduera-programari jarraipena emateko hamabost milioi pezeta erabil ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).

—Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da medikuntza orokorreko 46 mediku lanposturako deialdia alda dezan. Osasun Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Haren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da irradi-emisoreen esleipenak berrazter ditzan, Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsia (7. or.).

—Kurdistango gatazkari buruzko adierazpen politikoa. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Eskualdeko garraioa martxan jartzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak egin (8. or.).

#### G SAILA:

##### **Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

—Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamendua (9. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1999ko apirilaren 14an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Etxebizitzaren alorreko presako neurriei buruzko**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Etxebizitzaren prezioa etengabe ari da gora egiten; horrek beharrezko egiten du presako neurriak hartzea gure hiri eta herrietan etxebizitza bat izateko eskubidea bermatuko duen politika aktiboa sustatzeko.

Udal Planeamendua gure udaletan lurzoru eta etxebizitzaren sustapenean jardutea bideratu behar duen tresnetako bat da.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak 74. artikuluan ezarri zuen Planak 2.000 biztanletik gorako populazioa aurreikusten duenean, etxebizitzetarako aurreikusten

denaren ehuneko 15, gutxienez, babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eraikitzeke izan behar duela.

Halaber, 268. artikuluan, Lege horrek xedatu zuen Udal Planek urbanizagarri programatu gabekotzat edo ez-urbanizagarritzat sailkaturiko lurzoruan, eros litezkeen lurren erreserbak ezarriko direla Lurzoruaren Udal Ondarera sartzeko.

Hala eta guztiz ere, 10/94 Foru Legearen azken agindu hori mamirik gabe gelditu da erreserba modulurik ez delako ezarri.

Agerian gelditu da bi neurri horiek ez dutela balio izan lurzoruaren espekulazioa gelditzeko, eta zenbaitetan gertatu da egon ez dagoela etxebizitza merkeak sustatzeko lurrik.

Berriki argitaraturiko zenbait azterlanen arabera, etxebizitza behar duten herritarren %80ek babes ofizialeko etxebizitza bat baino ezin du erosi; argi ikus daiteke, beraz, zeinen barregarri gelditzen diren legearen aurreikuspenak.

Beste aldetik, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri zuen hiri lurzoru kontsolidatu gabeko eta urbanizagarriak Udalarri laga behar zaizkiola Lurzoruaren Udal Ondarean sartzeko. Hala eta guztiz ere, 24/98 Legeak ezarri zuen kontsolidatu gabeko hiri lurzoruak salbuetsita daudela betebeharrak horretatik, eta aprobetxamenduaren %100 ondare bihurtzeko daitekeela. Gainera, aditzera ematen du ezin izanen direla banaketa arloetan sartu; horretara ezinezkoa egiten da hiri lurzoru kontsolidatuaren zama eta onuren banaketa ekitatiboa egitea eta sistema orokorrak atxikitzea lurzoru kontsolidatu horiei.

Argi dago aprobetxamenduaren %100 ondare bihurtzeko eskubidea ez dela oztopo lurzoru horiek sartzeko batez besteko edo berariazko aprobetxamendu bat -betiere, ondare bihurtzeko daitekeen aprobetxamendua- daukan banaketa-eremu batean, orube edo lur bakoitza banaka ondare bihurtu beharrean.

Beharrezkoa da ere 77. artikuluan aprobetxamendu-erreserbak, aparkalekuetarakoak, razionalizatzea, beharrak erabilera motaren ara-

bera bereiziz; izan ere, legearen gaurko aurreikuspenak gehiegizkoak dira, urbanizazio kostuen behar ez den gehikuntza ekartzen dute, eta, ondorioz, babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzea oztopatzen dute.

Horrenbestez, beharrezkoa da 10/94 Foru Legearen presako aldaketa egitea aipaturiko arazoei konponbidea emateko, nola-eta zenbait erreserba eginez Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke, etxebizitza publikoen politikari laguntzeko benetako tresna izateko adinakoak.

Halaber, bidea eman behar da kontsolidatu gabeko lurzoruek banaketa eremuetan parte har dezaten.

#### **1. artikulua.-** Babes ofizialeko etxebizitzak.

10/1994 Foru Legearen 74. artikulua ordez ondoko testua jarriko da:

"1.- Udal planen barrenean zehaztuen batzuek sartu beharko dira babes etxebizitzak eraikitzeke, gutxienez, ondokoak eginen direla bermatzeko:

a) Planeamenduak 15.000 biztanle baino gehiagoko gaitasun demografikoa aurreikusten dituen udalplanetan, aurreikusitako etxebizitzetarako gaitasun berriaren %65.

b) Planeamenduak 10.000 biztanle baino gehiagoko eta 15.000 biztanle baino gutxiagoko gaitasun demografikoa aurreikusten dituen udalplanetan, aurreikusitako etxebizitzetarako gaitasun berriaren %50.

c) Planeamenduak 5.000 biztanle baino gehiagoko eta 10.000 biztanle baino gutxiagoko gaitasun demografikoa aurreikusten dituen udalplanetan, aurreikusitako etxebizitzetarako gaitasun berriaren %40.

d) Planeamenduak 2.000 biztanle baino gehiagoko eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko gaitasun demografikoa aurreikusten dituen udalplanetan, aurreikusitako etxebizitzetarako gaitasun berriaren %30.

e) Planeamenduak 1.000 biztanle baino gehiagoko eta 2.000 biztanle baino gutxiagoko gaitasun demografikoa aurreikusten dituen udalplanetan, aurreikusitako etxebizitzetarako gaitasun berriaren %10, salbu 100 etxebizitza baino gehiagoko gehikuntzak aurreikusten diren kasuetan; izan ere, azken horietan erreserba %30 izan da.

f) Planeamenduak 1.000 biztanle baino gehiagoko gaitasun demografikoa aurreikusten dituen udalplanetan, aurreikusitako etxebizitzetarako gaitasun berriaren %15, salbu 100 etxebizitza baino gehiagoko gehikuntzak aurreikusten diren kasue-

tan; izan ere, azken horietan erreserba %30 izan da.

2. Aurreko artikulua aipatzen dituen zehaztuen Planeamenduak indarra duen aldi guztian mantenduko dira.

3. Lehen idaztiak aipatzen dituen erreserben %50, gutxienez, desjabetzapena egin eta Lurzoruaren Udal Ondarean sartzearen sistemaz kudeatuko dira. Erreserbaren %25 alokairuko etxebizitza publikoen kudeaketarako gordeko dira.

#### **2. artikulua.-** Udal Planaren lurren erreserbak.

10/1994 Legeko 268. artikuluari ondoko hitzez hitz esan den hiru gutziaren idaztia gehitzea:

3.- Lehen idaztiak aipaturiko lurren erreserbak ez dute izan Planeamenduak aurreikusitako gaitasun berriaren %25eko azalera baino gutxiago.

#### **3. artikulua.-** Banaketa eremuen mugapena hiri lurzoruan.

Hirigintza probetxamenduen arloko presako neurriei buruzko 24/1998 Foru Legeko 3. artikulua 1. idaztia aldatu da. Hauxe esan da:

1. 15.000 biztanle baino gehiago izateko aurreikuspena duten Udal Planek banaketa eremuak mugatuko dituzte hiri lurzoru guztirako; kanpo utziko dira urbanizazioa kontsolidatuta izan eta aprobetxamendu kontsolidatuaren gehikuntza –dela dauden erakinak zabalduz edo ordeztuz, dela eraikin berriak eginez– aurreikusten ez diren lurrak.

15.000 biztanle baino gutxiagoko udalplanen banaketa-eremuak mugatzen ahal izan dituzte hiri lurzoruan, aurreko idaztia ezarritako baldintzetan.

#### **4. artikulua.-** Aparkalekuak.

10/1994 Foru Legeko 3. artikulua 1. idaztia aldatu da. Hauxe esan da:

1.- Etxebizitzetarako poligonoetan, aparkaleketarako gutxieneko erreserba ondokoak izan da: leku publikoan, etxebizitza bakoitzeko plaza bat eta beste plaza bat etxebizitzei loturik ez dauden beste erabilera batzuetako, eta garaje pribatuetan, plaza bat etxebizitzetarako eraikitako 100 metro koadro bakoitzeko.

#### **Xedapen iragankorrak.**

**1go.** Foru lege hau aplikatu beharrezkoa izan da indarrean sartu aurretik behin-behineko onetsi gabe dauden planeamendu guztietan.

**2gn.** Behin-behinekoz edo behin betiko onetsitako planeamenduak bi urteko epean egokituko dira foru lege honetan ezarritakoari.

**3gn.** Etxebizitzak gehiago izatera daramaten Planeamenduaren aldaketa puntualek lege honetan ezarritakoa beteko dute dagokien eremuan.

### **Azken xedapenak**

**1go.** Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**2gn.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da irakasleak euskarazko birziklapen ikastaroak egin ditzaten aukera emateko neurriak har ditzan**

*«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da irakasleak euskarazko birziklapen ikastaroak egin ditzaten aukera emateko neurriak har ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko apirilaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztaibadari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko apirilaren 14an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**MOZIOAREN EDUKIA**

“Ezker Abertzalea” Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztaibada eta bozka dadin:

1. Parlamentu honek Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen du behar diren neurriak hartzera, itunpeko ikastetxeetako irakasleak euskaraz birziklatzeko ikastaroetara sartzeko modua izan dezaten.

Iruñean, 1999ko martxoaren 31n

Foru Parlamentarioa: Pedro Romeo Lizarraga

## **Ebazpena. Horren bidez, Osasun Kontseilaria premiatzen da gazteen artean GIBari aurrea hartzeko jarduera-programari jarraipena emateko hamabost milioi pezeta erabil ditzan**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Osasun Batzordeak, 1999ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Osasun Kontseilaria premiatzen da gazteen artean GIBari aurrea hartzeko jarduera-programari jarraipena emateko hamabost milioi pezeta erabil ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko apirilaren 8an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena. Horren bidez, Osasun Kontseilaria premiatzen da gazteen artean GIBari aurrea hartzeko jarduera-programari jarraipena emateko hamabost milioi pezeta erabil ditzan**

Nafarroako Parlamentuak Osasun Kontseilaria premiatzen du 16290-0 kontusailetik, "GKEkiko hitzarmenak (HIES)" deituta, hamabost milioi pezeta erabil ditzan FOSHEZek iaz hasi zuten programa bati jarraipena emateko; hain zuzen ere, gazteen artean GIBari aurrea hartzeko jarduera-programari.

## **Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da medikuntza orokorreko 46 mediku lanposturako deialdia alda dezan**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Osasun Batzordeak, 1999ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da medikuntza orokorreko 46 mediku lanposturako deialdia alda dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko apirilaren 8an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da medikuntza orokorreko 46 mediku lanposturako deialdia alda dezan**

1. Nafarroako Gobernua premiatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 22an emaniko 1293/1998 Ebazpena, 1998ko abenduaren 14ko 149 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, alda

dezaten, alegia, Larrialdietarako Zerbitzu Arrunteko bederatzi lanpostu atera ditzatela deialditik.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantila organikoa alda dezan, nola-eta egun Nafarroako Larrialdi Zerbitzuan diren lanpostu guztiak (Larrialdietarako Zerbitzu Berezia, Larrialdietarako Zerbitzu Arrunta, SOS Nafarroa eta anbulantzia medikalizatuak) betegabeko lanpostutzat ager daitezen aipatu eskaintzan.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea dagokion enplegu-eskaintza publikoa onets eta argitara dezan, aurreko puntuan ezarritakoarekin bat.

4. Nafarroako Gobernua premiatzea deialdi berezia onets dezan Larrialdi Zerbitzurako, non programa eta aintzat hartzeko merezimenduak larrialdi-espezialitaterako bereziak izanen baitira.

5. Nafarroako Gobernua premiatzea aipatu deialdiaren bidez modu finkoan bete ditzan aurretik eskainitako lanpostu horiek (bigarren puntuan adierazitakoaren arabera).

## **Erabakia. Haren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da irradi-emisoreen esleipenak berrazter ditzan**

### *HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSIA*

Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 1999ko apirilaren 13an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Haren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da irradi-emisoreen esleipenak berrazter ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko apirilaren 14an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Erabakia. Haren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da irradi-emisoreen esleipenak berrazter ditzan**

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du administrazio-emakidaz esleitu zituen irradi-emisoreen egoera berrazter dezan, lehiatzaileek egin zituzten proposamen eta eskaintzen arabera. Izan ere, esleipena jaso zuten lehiatzaileek hartu zituzten konpromiso guztiak aztertu beharko dira, bete diren ala ez egiaztatzeko.

Aipatu berrazterketa 1990ean egindako emakida guztietara hedatuko da, eta dagokion neurri administratiboak hartuko dira, hala bada.

---

## **Kurdistango gatazkari buruzko adierazpen politikoa**

### *BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA*

Bozeramaileen Batzarrak, 1999ko apirilaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuko Gobernua premiatzen du nazioarteko ekimen bat irekitzea susta dezan, Kurdistango gatazkak konponbide politikoa izan dezan, aldean arteko elkarriketaren eta negoziaketaren bidez.

**Bigarrena.** Turkiako agintariek Kurdistango Langileen Alderdiaren buruzagi nagusi Abdullah Ocalan atzeman dutela-eta, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Turkiako agintariek Ocalan jaunaren osotasun fisiko eta psikologikoa errespetatzearen alde dagoela, Genevako Hitzarremen hirugarren artikulua komunaren arabera.

Iruñean, 1999ko apirilaren 13an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Eskualdeko garraioa martxan jartzeari buruzko galdera***MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko apirilaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentario jaunak eskualdeko garraioa martxan jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko apirilaren 14an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Miguel Ángel Larrayoz Lezaun jaunak, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Eskualdeko garraioari dagokionez, Nafarroako Demokraten Elkargunearen irizpidea da ahal den guztian bultzatu behar dela, egiazki gauzatu dadin, gaur egun kontzesio-hartzaile diren bi enpresen –COTUP eta La Montañesa, SA– bate-

ratzea; izan ere, gure iritziz, bi horien batuketatik sortuko dena zerbitzua emateko enpresa onena izanen da. Hori guztia dela eta, hauxe jakin nahi da:

a) Ezagutzen al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak nola dauden bateratzeari buruzko negoziazioak?

b) Uste al du Departamentuak zerbitzua emateko interesgarria dela bi enpresa horien bateratzea?

c) Zein izan dira Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eman dituen urratsak bi enpresa kontzesio-hartzaileen bateratzea sustatzeko?

d) Prest al dago Departamentua aurreikusitako epea luzatzeko, bateratzea erdiestearren?

e) Ba al daki Departamentuak bidaiarien hiri-garraioan aritzen den enpresaren batek bere helbide soziala Nafarroan jarri duen?

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

Foru Parlamentarioa: Miguel Ángel Larrayoz Lezaun



---

**G saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratazeari buruzko Erregelamendua**

1999ko apirilaren 13an egindako bileran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1999ko martxoaren 16an, Biltzarreko Mahaiak Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Langile Batzordearen arteko Hitzarmena onetsi zuen 1999 urterako. Hitzarmen horren 11. puntuan xedatzen da aldi baterako langileak kontratatzeari dagokionez, hitzarmen horretako 2. eranskinean ezarritako irizpideei jarraituko zaiela. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 4. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamendua onestea.

**2.** Erabaki hau eta onetsitako erregelamendua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agitzea.

Iruñean, 1999ko apirilaren 14an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamendua**

**1. artikulua.** Aldi baterako langileak kontratazko kasuak

Nafarroako Parlamentuak hurrengo kasuetan kontratatatu ahal izanen ditu aldi baterako langileak:

a) Plantila organikoko lanpostu hutsak behin betiko bete arte.

b) Langileen Estatutuak aurreikusitako edozein kasu dela-eta funtzionarioa aldi baterako kanpoan badago (gaixotasuneko baja, eszedentzia, zerbitzu bereziak, prestakuntza, etab.). Kasu honen barruan egonen da lanaldia laburtua duen funtzionarioa ordezkatzeko eginiko lanaldi partzialeko kontratazioa ere. Gaixotasuneko baja bete egin

beharko da, baldin eta hamabost egun baino gehiago iraunen duela aurreikusten bada.

c) Premia berriei erantzuteko edo, baita ere, zerbitzuaren ondorio diren behar bezala justifikatutako premiei erantzuteko; betiere, kasuan kasuko zerbitzuburuak akreditatu beharko du langile nahiko ez dagoela, eta kontratazio horiek Biltzarreko Aurrekontuen mugak ezin izanen dituzte gainditu. Kasu honetan, zerbitzuburuaren txostenak zehaztu egin beharko du kontratuaren iraunaldia.

**2. artikulua.** Kontratuaren izaera

Aldi baterako langileen kontratazioak administrazio-izaera izanen du. Kontratututako pertsonari gizarte-segurantzako erregimen orokorrean alta emanen zaio.

**3. artikulua.** Ordainsariak

Betetzen duen lanpostuari dagozkion ordainsariak izateko eskubidea izanen du kontratatutako pertsonak, eta ez du inolaz ere antzinasun eta graduagatiko saririk jasoko.

**4. artikulua.** Kontratuaren amaiera.

1. Plantilla organikoko hutsuneak behin-behinekoz beteta dauden kasuetan, kontratua berez amaituko da hutsune hori behin betikoz betetzen denean, bai Langileen Estatutuan aurreikusitako edozein prozeduraren bidez, bai aplikagarri den beste edozein arauren bidez (lekualdatze lehiaketa, merezimendu lehiaketa, oposizio-lehiaketa, barne-sustapena).

2. Funtzionarioak ordezkatzeko aldi baterako kontratuen kasuan, ordezkatzutako funtzionarioa itzultzen denean amaituko dira kontratuak; lanaldi laburtua duen funtzionarioa ordezkatzeko kasuetan, berriz, funtzionarioa lanaldi osora itzultzen denean.

3. Premia berriei edo zerbitzuaren ondorio direnei aurre egiteko kontratazioen kasuan, kontratuan ezarri den iraunaldia betetzen denean.

4. Ondokoak ere kontratua amaitzeko arrazoi izanen dira:

– Alderdien arteko akordioa.

– Kontratututako pertsonaren erabakia; Parlamentuko Mahaiari hamabost egun aurretik jakin arazi beharko zaio idatziz erabaki hori.

– Biltzarreko Mahaiak ezarritako epearen bete-tzea.

– Nafarroako Parlamentuko zerbitzuen berrantolamendua, edo plantila organikoaren aldaketa, halako moldez eginga non dagokion funtzionarioen kidegoari eraginen dion. Langileen Batzordeari aurretik eman beharko zaio zerbitzuen berrantolamenduaren berri.

**5. artikulua.** Langile kontratatuak hautatzeko prozedura.

1. Publizitate, merezimendu eta gaitasun hatsapenei begiratuko zaie langileak hautatzera-koan. Langileak kontratzeko prozedurek kontratazioaren zalutasunik handiena ahalbideratu beharko dute.

2. Honako hauek izanen dira hautatze-prozedurak:

a) Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako zerrendak egitea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

b) Kontrataziorako izangaien zerrendak egitea, funtzionario sartzeko hauta-probak gainditu baina lanposturik gabe geratu diren oposizogileek ateratako puntuazioaren arabera. ("Gainditu baina lanposturik gabe geratu direnen" zerrendak).

c) Kontrataziorako izangaien zerrendak egitea. Horretarako probak deialdi publikoaren bidez egingen dira. (Kontratazioen zerrenda).

3. Aurreko idazatik a) letran ageri diren zerrendetan dauden Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek lehentasuna izanen dute 1. artikulua aipatu dituen hutsuneak aldi baterako betetzeko; betiere, aurreikusitako iraunaldia hiru hilabete edo gehiago bada. Gehienezko iraunaldia, edonola ere, hamabi hilabete izanen da.

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek betetzen ez badute aldi baterako hutsik dagoen lanpostua, "gainditu baina lanposturik gabe geratu

direnen" zerrendakoek lehentasuna izanen dute kontratazioen zerrendakoekiko.

4. Zerrenda bakoitzaren barruan beti deitu beharko zaio puntuari arabera zerrendan lehenengo agertzen denari, ez badago Nafarroako Parlamentuan lanean, behintzat.

Kontratazioari uko egin edo kontratua bere aldetik suntsiarazten duten pertsonak zerrendaren azken tokira joanen dira. Kontratua beste edozein arrazoiengatik amaitzen bada, zerrendan dagoen tokia hartuko dute.

Zerrenda bateko izangai guztiek uko egiten baldin badiote kontratazioari, zerrenda iraungitatzeko da, eta beste zerrenda bat egingen.

**6. artikulua.** Zerrenden indarraldia

1. Nafarroako Parlamentuak prestakuntza-zerrendak erabili ahal izanen ditu harik eta aipatu zerrendak osatzen dituzten funtzionario guztiek zerbitzu berezietako egoeraren gehienezko epea agortu arte.

2. Funtzionario sartzeko oposizio edo oposizio-lehiaketetarako ondorengo deialdietatik ateratzen diren zerrenda berriek ordezkatuko dituzte "gainditu baina lanposturik gabe geratu direnen" zerrenda zaharrak, zeinak baliorik gabe geratuko baitira une horretatik beretik.

3. Izangaien zerrendek lau urteko iraunaldia izanen dute, eta baliorik gabe geratuko dira aipatu epea bukatzen denean.

**7. artikulua.** Langileen Batzordeari eman beharreko informazioa.

Aurretik emanen zaio informazioa Langileen Batzordeari irizpide hauen arabera egingen diren kontratazioei buruz.

**Lehen xedapen gehigarria.** Aplikazioa eta garapena.

Esku ematen zaio Legelari Nagusiari Erregelamendu hau garatu eta aplikatzeko behar den xedapen oro emateko.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Indarra hartzea.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra Erregelamendu honek.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 175 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--